

**IKUSPEGI**  
**FEMINISTAK EKOIZPEN**  
**ARTISTIKOETAN ETA**  
**ARTEAREN TEORIETAN**

**I. EDIZIOA**

2012

Egilea

**AMELIA VALCÁRCEL**

Titulua

**LA VENADITA ETA MEDUSA ARTEAN**



**AZKUNA ZENTROA**  
**ALHÓNDIGA BILBAO**

Hasierako latina ikastea —testuliburuaren hasierako esaldi bat dut gogoan—, honelako gauzak itzuli ohi ziren: «Vinum et mulieres laetificant cor». Zerbait falta zela iruditu zait betidanik; datibo bat akaso, *hominis*, adibidez. Aitortzea kostatzen bazait ere, ezin uler nezakeen nola alaituko zuten emakumeek ene bihotza, asko ezagutu arren gutxi batzuk zeudelako hori egiteko prest. Hala ere, baliteke gizonen esperientzia bestelakoa izatea. Emakumeak, beren artean, ez ziren atseginak; areago, hortzak erakusten zizkioten elkarri. Baina baliteke gizonen gutxiagotan erakustea. Atzean utzi nuen haurtzaroa, baita latina ere, eta emakumeak beren haserre arlo publikoan agertzen ari zirela konturatu nintzen egun batean. Feminismoak ere horretan lagundu zuen, zalantzarik gabe; baina norbanakoaren haserreaz ari naiz oraingoan. Hogeita hamar urteko emakumeak txarto begiratzen hasten ari ziren.

## Norbere buruaz jabetzeko bidea

«Zorionaren eta zorigaitzaren arteko aldea erraz-erraza da», idatzi zuen Dickensek bere Paperetan, «hogeita hamar libera badituzu eta hogeita bederatzi gastatzen badituzu, zoriontsu izango zara. Hogeita hamar libera horiek izanik hogeita hamaika gastatzen badituzu, aldiz, zoritxarreko». Bitxia da, gero, zorionaren neurri zehatz hori. Batez ere, neur daitekeen beste edozergatik alda litekeelako dirua. Esate baterako: errespetua nahi baduzu eta lortzen baduzu, zorioneko zu; nahi baduzu eta ezin baduzu lortu, gutxigatik bada ere, zoritxarreko izango zara. Bada bereziki nazkagarria den topiko bat, baina zentzu pixka bat duen pentsalari orok erabiltzen duena: zeinen zoriontsu den jende xumea gure gizartean, edo, are hobeto, mundu azpigaratuan. Irribarre zintzoak, bizi-poza... hemen galdu ditugunak, antza. Emakumeak ere ez dira jada lehengo atseden eta plazeraren iturri! Beste edozeinek bezain txarto begiratzen dute orain, eta ez dute zorion publiko eta pribatua esku hartzen, gozo izateko legearen baitan. Munduari suminkor begiratzen diotenak ere badaude.

Emakumeek ez ziruditen haserrekorrak berez. Hau da, eskuarki ez zaie ezaugarri hori inoiz egotzi, ez gure kulturari, ez eta beste askotan ere. Izan ere, adeitsu, atsegin, bakezale, gozo, koldar, beldurti, maltzur eta itxurazaletzat jo izan dira oro har, baita zuhurtzat ere, zenbaitetan. Hain zuzen, mintzeko edo irainen aurre egiteko gai ez direneneri uztarturiko ñabardurak dira aipatutako ezaugarriok.

Denbora luzez irau du emakumeen zapalkuntzak; bitartean, ez dakigu sumina bertan izan den, lotan beharbada, ala estutasun eta negar bilakatu behar izan duen automatikoki. Emakumeek ez dute garrasi egiteko toki askorik izan; airea bada ere, besterik ezean. Jaialdi batzuek eman diete horretarako aukera, data jakin batzuetan. Eta aiurri neurrigabekoek etxean bertan egin izan dute, azpikoekin, ordainean ospe eta lausengu gehiegirik jaso gabe. Bizi diren munduak ez die bidezko sumindurarik ematen emakumei: emakume batek garrasi egiten du, ez da haserretzen; eta garrasi eginez gero ere, laguntza eskatzeko baino ez da izango. Haserretzeko eskubidea erdietsiz joan dira emakumeak duela gutxi, neurriz betiere, noski.

Duela hamar bat urte, esan legez, suminez beteriko hodeia eratzen ikusi nuen zeruertzean. Zapuztutako itxaropenen sumindura. Beren tokia aurkitu ez dutenei munduari erreparatzean darian sumindura, alegia. Hala ere, ez dakit zer erregai mota den sumina. Zerbait mugituko duelakoan nago; ez dakit, ordea, zeintzuk diren bidea eta emaitzak. Hobeto azaltzen saiatuko naiz.

Azken bi mendeotan, beren buruaz jabetzen hasi dira emakumeak, sexu eta talde interesdun diren aldetik; hori egitean, aldiz, gizonen zein emakumeen partekatutako baliozko ordenari egin diote aurre (hots, patriarkatuari) eta, hartara, dianoetikaren ikuspuntutik, zail dute aurkakoa seinalatzea. Mendebaldeak heteroizendapenak hautsi izan ditu, eta ekintza horiek guztiek talde zapaltzaile nabarmena zuten beti: odol-nobletasuna, kapitalistak, esklabistak... Arrazoi dianoetiko gorabehera —aurkakoa seinalatze zailtasuna—, emakumeek ez diete inoiz beren egoera txarraren errua leporatu gizonen. Arrazoi dianoetiko baino sakonagoa den zerbaitengatik izango da hori; feminismoak ondo baino hobeto ulertzen du gizonen protagonismoa emakumeen zapalkuntzan, baina, pragmatikoki, ez du bere burua hura hedatzeko egoeran ikusten. Ez da komeni; edo, orain arte bederen, ez da komeni izan.

Baztertu, arbuatu, aldaratu ere egin du feminismoak bere lana eta borroka «gizonen aurkako gerratzab» hartzen duen ideia. Etsai abstraktuen bila ibili da, eta horri darraio oraindik ere: legeak, usadioak, patriarkatua... aurpegirik ez duten etsaien atzetik. Nolanahi ere, emakumeen askatasunak etsai ugari ditu, Hegelek maisukiro adierazitakoa betetzen dutenak: «partikularrak baino ez du eraginik». Hots, gutxi batzuek zinez eta eraginkorki jardungo ez balute, nekez umildu, menderatu, bortxatu edo gutxietsiko lituzkete emakumeak. Baina



baliteke zio ilunagoak, sakonagoak, egotea ez seinalatzeko. Zerbait bidegabea ez balitz, ez litzaioke haserre edo suminez aurre egin beharko. Eta emakumeen zapalkuntza, arestian esan dudan bezala, bidegabekieriaz hartzeko bidean dago, bidean soilik, munduaren zatirik handienean. Barru-barruan, umiliaziorik txikiena pairatzen dutenek sentituko dute, beharbada, sumindurarik handiena. Eta pentsatzeko eta jarduteko gailua zaila da muntatzen.

## Sexuen arteko gerra

Oraino ez dakit zer erregai mota den sumina, azaleratzen ari bada ere. Haserre horren helburua zein den galdetu behar diogu geure buruari, eta horrek ezagun samar zaigun beste galdera batera garamatza berriro: Ba al da sexuen arteko gerrarik? Berriro esango dut: Iraultza feminista hasi zenetik, eta zorrotz zenbatuz gero badira hiru mende abian jarri zenetik, ezeztatu baino ez da egin. Ez da, ez da izan eta ez da izango. Ondo moldatzen dira sexuak elkarren artean. Hori da logikoena, berezkoa, naturalena. Erreibindikazio berri bakoitzarekin, halere, oreka-gune berri bat ere topatu beharko dute, bakez. Bistan dago proposatzaileak esan ohi duela hori<sup>1</sup>, kasu honetan feminismo antolatua; aurkariak, sisteman ezarrita dagoenak, ez du hainbeste naturaltasunez onartzen. Norbere buruaz jabetzeko prozesuak, edozelan ere, ez dira errazak, ez eta baketsuak ere, oro har. Feminismo antolatuaren aurka erabilitako indarkeria intentsitate txikikoa edo noizbehinkakoa izateak<sup>2</sup> ez du esan nahi gizonen boterearen mikrofisikan indarkeriarik egon ez denik, ezta hurrik eman ere.

Adibidez, sexuen arteko gerraren zati al da emakumeen aurkako indarkeria? Esku hartzen duten ia guztiek, baita pertsona bakezale arruntek ere, ezetz esango dute. Gertakari bakanak dira, ustekabeko ahultasunen ondorioz gertatzen direnak: izaera, gizarte-maila, inguruabar bereziak... alkohola, bizipen txarrak, ohiz kanpoko esperientziak, gerrak, auzokoak... labur esanda, egitura adierazgarririk ez duen ezusteko mukurua. Ahots gutxi batzuek esango dute emakumeek jasaten duten indarkeriaren zati bat —are gehiago, zati handi bat— berriki erdietsitako askatasunen ondore dela, gerra baten jazoera, azken finean, non lehiakideetako batek legearen esparru berria eta hitza erabiltzen baititu, eta besteak, berriz, indarraren ohiko baliabidea. Ahots horiek ere «sistemaren indarkeria iraunkorra» aipatuko dute, baina entzungor egingo zaie. Denon egia aurrerapenaren ideia irenistaren baitan zedarritzen da, non emakumeen askatasunak «emakida arrazionalista xalotzat» hartzen diren, denboraren muinean jatorri dutenak, erreibindikazio-aurrekaririk ez dutenak eta inori ere sufrimendurik edo indarkeriarik ekarri ez diotenak. Emakumeen aurkako indarkeria anizkoitza batu ezin delako geratzen da ezerezean; ez da komeni batuketa hori egitea.

Feminismoa erreminak bultzatua zela adierazi zuten askok, hasiera-hasieratik hura baztertzeko, eta aurrera eramaten zutenak, aldiz, minberatzat jo zituzten. Eta hori, hori guztia, oroitu eta konturik atera gabe. Baina nola ez du, bada, erresuminik sentituko edo mendekua desiratuko bere larruan sufritu duenak eta egoera saihestu ezin duenak? Bi dira aukerak: gainerako gizakiak ez bezalakoa izatea edo sufrimendua gain hartzeko aukera ez izatea berez; batuketak debekatzearen antzekoa da, baina gaiztakeria-kutsu bat erantsita. Ez dago beste batengatik sufritzeko eskubiderik, norberaren sufrimenduarengatik soilik sufri daiteke; eta, gainera, egoera hori pairatzen duenak ezin du bere burua sistematik kanpokotzat agertu, hori adieraztea lotsagarria baita. Eta bat bere buruarekin hala haserretzen denean, mindu egiten da, ezereztu, goibeldu. Ezin hobeto azaldu zuen Betty Friedanek *Adinaren sorburua* liburuan. Hitzez adieraztea eta ekitea nork bere burua zigortzea baino estrategia hobekak dira.

<sup>1</sup> Erlangeneko Eskolaren logika eta erretorikako ikerlanen arabera erabiltzen ditut proposatzaile eta aurkari terminoak.

<sup>2</sup> Hain argi ez dagoena. Kartzela, kolpeak, sudur-trenkada apurtuz jatera behartzea eta abar.



## Egun hartan New Yorken

Hori guztia sormenera helaraziz gero, alegia, estetikara, non esanahi konkretuen hizkuntza hausten baita, egoera are txarragoa da. Kolerak ere baditu bere pasadizoak. Gogoratu dezagun bat. Egun batean, zehatzago, 1968ko ekainaren hiruan, hogeita hamar urte inguruko Solanas abizeneko neska batek pop mugimenduaren ikur Andy Warholi tiro egin zion. Harekin lan egin zuen, gutxitan, Faktorian Warholek egiten zituen abangoardiako film pare batean, hain zuzen. Beste lan bat proposatu omen zion neskak, gidoi eta guzti; *Sartu ipurtzulotik* izenburua jarri zion Solanasek. Garai zantarrak ziren oso, eta gogotsu ziharduen elementu progresistak «urratzea» edo «transgresioa» zelakoan. Warholi interesgarria iruditu zitzaion gidoia; handik gerora, gidoia ez ezik interesa ere galdu ei zuen. Solanas haren bulegoan sartu eta mendeku hartu zuen; ez bat eta ez bi, tiro egin zion Warholi eta haren laguntzaileei.

Valerie Solanas ez da oso ezaguna pop mugimenduaren zaleen artean, baina bada egun bizi dugun feminismoaren hirugarren boladaren parte. Parerik gabeko testu bat ere idatzi zuen, **Seum Manifestua** izenekoa. Agidanez, «gizonak zikiratzeko gizartearekin» bat dator izenburu hori, eta baliteke hala izatea; hitzez hitz, apar zikin esan nahi du, eta irudizko adieran, berriz, zabor, zakar, hondakin, kaka. Zerbait estaltzen duen apar zikinezko mintza da *scum*. Solanas manifestu hori egiten edo amaitzen ari zen Warhol erailteza erabaki zuenean. Ez zuten harreman handirik izan, egia esan. Warholengan bildu omen zuen Solanasek aspaldi-aspaldidaniko hira, eta horregatik ageri da erokeriaren itzala. Etxean bortxatutako emakume azkarra, noizbehinka prostituzioan ibilia bizibidea ateratzeko, editoreen bila zebilena eta Warhol tirokatu zuena, bere lehen helburua, inguru hartako morroi bat, helmenean ez zegoelako.

Zera idatzi zuen: «Gizarte honetan bizitzea asperduraren asperduraz hiltzea baino ezin daiteke izan, zorte apur batekin. Emakumeek ez dute zeresanik gizarte honetan. Hortaz, oraindik ere gizabide pixka bat eta erantzukizunerako zein dibertitzeko sena geratzen zaie emakumeek gobernua uzkaile, dirua ezereztu, maila guztietan automatizazioa ezarri eta gizonetako garbitu beste erremediorik ez dute»<sup>3</sup>. Hasiera baino ez zen hori; bertan adierazi zuen, halaber, «ezbehar biologikoa baino ez zirela arrak» edo «porrot egindako emakumea zela gizona», ustez, enbrioi-garapenaren ikuspuntutik. Berria ere ez da kontu hau, egia esateko; izan ere, antzeko gauzak esaten zituen psikoanalisiak emakumei buruz. Solanasek moralaren ezaugarriak ere jorratu zituen: «Zeharo egozentrikoa da gizona, bere buruaren gatibu, partekatze edo besteen lekuan jartzeko ezgai; traketsa, gainera, maitasunean, estimuan, gozotasunean... erraietako erreazioak ditu, eta bere premiak eta konpultsioak asetzeko baino ez du erabiltzen adimena»<sup>4</sup>. Gizona «arranpalo ibiltaria baino ez da»; pasiboa berez, gainetik estigma kendu nahi duena, eta txortan egitea du hori lortzeko tresna bakar.

Solanasek behin eta berriz idazten du aditz hori, grabaturik uzteko: «Erruduntasunak, lotsak, beldurrak eta larritasunak itota, eta bere ahalegin guztien ondorengo huts-sentsazio lausoa gorabehera, ideia bera beti buruan: txortan egitea, txortan egitea. Zalantzarik ez du egingo kakaz beteriko ozeano batean igeri egiteko, ezta gonbitotan murgiltzeko ere, beste ertzean motxin bero-bero bat topatzeko itxaropen txikiena ere badu»<sup>5</sup>. Solanasen ustetan, sentimendu-kimu horren adarrak gerra, dirua, lan errepikakorra eta, azkenik, aitasuna dira. Azken hori honela ebazten da: «*matxoaren* gaitza ekarri du berekin aitaren eginkizunak. Midas dira gizonak, berezitasun txiki batekin: ukitzen duten guztia kaka bihurtzen dute»<sup>6</sup>. Solanas, bere umore-sen gordinari utsiz, *matxo* arruntaren ahuleziak aipatuz doa bata bestearen atzetik: ahuleria, bekaizkeria, beren buruarekiko gorrotoa, intimitaterako senik eza... eta bizimodu arruntekin uztartzen ditu, baita hiri-kanpoaldeko txaletak edo hippyak ere, beren komunak eta guzti. Denak du sorburu bera. Gizonak ez du benetako banakotasuna ulertzen, familia edo tribuetan pentsatzeko gai baino ez da eta. Bere desira bakarrak, txortan egiteak, bahetu egiten du izan dezakeen edozein esperientzia.

Hitzek su hartu arte jarraitzen du Solanasek, sumin bizian: «gizonak ez ditu ongia eta gaizkia ezberdintzen, eta ez du kontzientzia moralik (besteen larruan jartzeko ahalmenetik sor baitaiteke hori), ez eta bere buruarengan sinesten ere; lehiakorra da halabeharrez, eta ezgia berez, erkidegoko bizitarako». Sumin horretan, beraz, tradizio misogino modernoaren betetzen duten emakumei buruzko antzeko

<sup>3</sup> SCUM Manifestua, argitalpen pirata, ziklostila, lekurik eta datarik gabea, 73.-74. or. ziur asko.

<sup>4</sup> *Ibid.*, 2. or.

<sup>5</sup> *Ibid.*, 3.

<sup>6</sup> *Ibid.*, 12. or.



paragrafoak antzeman daitezke. Antza denez, egungo tradizio misoginoak sortutako irain ugarietako batzuk itzultzen ditu lehenbiziko aldiz, erraketa eskuan, Solanasek. Hauxe, adibidez: «Antzina-antzinatik modu berean diharduten animaliak bezalatsu, gizakia ere bere horretan geratuko litzateke emakumeak baino ez balira egongo. Gizona da aurrerapen ororen iturburu. Horregatik dira emakumeak zama astuna haientzat; energiak, ikerketa asegaitzak eta ausarkeriazko berrikuntzak erabiltzeko oztopoa dira, bai eta ekimen zintzoak aurrera eramateko ere, emakumeak ez baitu bere kabuz ongia eta gaizkia ezberdintzeko gaitasunik»<sup>7</sup>. Edo hauxe, iturri berekoa: «senak piztien pare jartzen ditu emakumeak, menpeko, seguru eta alai». Edo beste hauxe: «Disimulua, hots, gezurra, emakumearen funtsezko arma naturala da». Edo, azkenik, «emakumeak adimen urrikoak dira, eta horrela behar du izan. Emakumeek gizonek bezalako ahalmenak garatuko balituzte, ama-organoak atrofiatuko litzazkieke eta gizaki *androgino* moldakaitz nazkagarri bat izango genuke aurrean. Zenbaiten aburuz, emakumea osasuntsua eta leloa izatea baino ez da desiratu behar»<sup>8</sup>. Kalibre bereko munizioarekin erantzuteko logikari jarraikiz, **Scum Manifestuak** Erdi Aroko elkarrekiko gaitzespenak ekarriko litzuzke orainaldira, edo norbere bikaintasunen kantua, sexuen arteko irainak, zeinak Behe Erdi Aroaz geroztik ere babesleak izan baitzituzten. Hirurogeita zortziko feminismoaren batera misoginia ere berpiztu zen, eta emakumeen erantzunari ahotsa eman nahi zion Solanasek. Bada, hala ere, alde esanguratsu bat: katalogoen desagertzea. Genero zaharrea, non adarrak ilustrazioaren mendera arte luzatu baitziren, misoginiaren aurkako defentsan beti aipatu da emakumezkoen lorpenen katalogo luze bat, letra ederretan, politikan zein santutasunean. Teoria politiko feministak eten egiten du praktika hori, eta neurri berdin baten aldarrikapenean ardatzen da, hots, unibertsalismoaren erreibindikazioan, onerako oro har, nahiz eta txarrerako ere izan daitekeen.

Solanasek, berriz, amorrua adierazten ari da, paradigma ezereztzen. Lehenbizi, ezaugarri oro entitate batera murriztea: *matxoa*. Berbera da beti, bere buruaren berdina, eta anitza itxuraz bakarrik. Ondoren, irudikatu nahi duen eiteari errespetua ukatzea: batezbesteko gizonak ez duela, ezta entzutez ere, unibertsalismoa ezagutzen esatea, bere anatomiaren zati bakar batekin itsututa dago eta. Ezeren neurria izan ordez, aipatzekoa da gizona biologikoa besterik ez dela, eta jadanik ez dela beharrezkoa espezieari eusteko ere, teknikoki. Disfuntzionala eta, tamalez, indartsua dela. Hura desagerraraztea izango litzatekeela zentzuzkoena. Solanasek ez du geroko bakerik eraiki nahi, ezta sexu-kontratu berri bat adostu ere. Haserrea ñabardurarik eta ia mugarik gabe adierazi du, besterik gabe. Misoginia klerikalean baino ezin diogu aurkitu paraleloren bat. Hartan bezalaxe, Solanasek ez zaio interesatzen sexu-estrategiak berekin duen azken helburua: espeziea iraunaraztea.

## Espezieari eustea

Azter dezagun orain **Scum Manifestuak** mundu sinboliko osoari eta horren zatiei buruz zuen iritzia. Filosofia, morala eta erlijioa gizonen asmakizunak dira, sexuan oinarritutakoak. Baina egilearen sormena indargabetu egin da nolabait. Haren azken diagnosiaren arabera, «mundua zentzugabea da». Eta egia da: berea bada burugabea. Gizona ahituta dago. Ez du ez bururik ez moralik dagoeneko. Emakumeentzat asmatu zuena oso simplea zen: gaizki zegoen gizonen premiak asetzen ez zuen edozer gauza, eta gogaikarria zen emakumeek ordena horren barruan inposatzen zaien eginkizuna errefusatzeko, hots, emakume izatea. Beauvoir datorrik burura behin eta berriz analisi honetan. Solanasek bere garaikideei egotzen dizkien kezka filosofikoetan ere azaltzen den legea: «gizonezkoen gizakien ezaugarriak erantzen dizkiete. Ezerezetik aurkezten dute beren arazoa, kikildu ere egiten dituen, dilema filosofikoa bailitza. Animaltasuna handitasunez jantzen dute, modu ezin irriarriagoan. beren hutsa “nortasun-arazotzat” hartzen dute, eta bokantza goratuz mintzatzen dira “gizabanakoaren krisiaz”, “izakiaren esentziaz”, “izatea esentziaren aurretikoa izateaz”, “izakiaren forma existentzialez” etab.»<sup>9</sup>. Emakumeek, berriz, ondo baino hobeto dakite nor diren eta zer dagoen gaizki. Besteei kalte egitea da gaitz bakarra. Eta «maitasuna da bizitzaren esanahia».

Gizonaren matxinada beti da fartsa bat: batzuk goian daude eta bertan geratu nahi dute, eta beste batzuk azpian daude, geratzeko igo nahi dutenak. Ukitu gabe ere igarotzen dira ideiak beren eskuetatik; erabili baino ez dituzte egiten, inoiz ez sinetsi. Gizonak ez du ideiarik edo

<sup>7</sup> J. P. Moebius, *La inferioridad mental de la mujer*, (1900), ed. ber. Bruguera 1982, 10. or.

<sup>8</sup> *Ibid.*, 17. or.

<sup>9</sup> Solanasek, *Ibid.*, 21. or.



askatasunik banatzen, harentzat estatusa, ospea eta gizarte-klaseak direlako garrantzitsuak. Hortaz, hezkuntzaren helburua ez da heztea, kanpo uztea baizik. Laburbilduz: gizonetzkoen gizartean gaude, gizonak egin beren premiak asetzeko; prozesu teknikoak behartuta aldatzen da soilik gizona, jada aukeratu ezin duenean, gizarteak aldatu edo hil beste aukerarik ez duenean. Hara heldu gara. Emakumeek azkar erreakzionatzen ez badugu, erortzeko arriskuan egongo gara guztiok<sup>10</sup>. Egoera honetan ezer gutxi balio du hitz egiteak. Elkarriketa ez dago gizonen aukeren artean. Egiatan, mespretxua baino ez dago modan. Dena gainezkutzen du: sexuen arteko harremanak, gizabanakoen artekoak, gizarte-bizitza osoa.

Eta, azkenik, artera iritsi gara. *Arte handia* edo *kultura* izenekoa mundu irrigarria da, umekoia eta itxurazkoa, zangarra askotan, gizonak egin bere burua garaile izendatzeko. Gezur hutsa da. Eta denok badakigu ere, beldurra ematen digu aitortzea. Solanasek ez du garbi uzten *arte handi* esapidearekin abangoardien aurreko aldia ere barne hartzen duen, edo horien ostekoa soilik; baina bere burua adierazteko moduari erreparatuta, badiurdi abangoardien ostekoei buruz ari dela. Edozelan ere, honako hau idazten du: «Emakumeen gain gizonak duten nagusitasunaren isla da *arte handia*, gizonak emakume direla frogatzen duena eta, beste alde batetik, feminismoaren aurkakoez gogorarazi ohi diguten legez, emakumeek gizonen egintza gaitza. *Arte handia* halakoa da gizonak, hots, *adituek* hori esan digutelako, eta ezin dugu kontrakoa esan; izan ere, sentiberatasun fin eta gorenek —gureak baino maila gorenekoek— baino ezin dute handitasuna antzeman eta balioetsi; sentiberatasun bikain horren adierazle dira miresten dituzten txerrikeriak<sup>11</sup>. Berezko mundu gutxi duen jendeak osatzen du kultura, «beren mirespena mirestea» nahi duenak; «kakarekin liluratzea behartuta dago jendea, zeruertzean kaka baino ez dagoelako». Gizonetako artistak izaki sexualak dira ia guztiz, «beren sentsazio fisikoez harago beste ezerekin harremanetan sartu ezin direnak». Emakumeen konfiantza zapuztu egin da eta, beraz, uko egiten dute. Baina kanpo bizitzeak sistema indartzen du.

## Itxaropenen deflakzioa

Soziologiaren eta ekonomiaren arteko kimera bezala sortu dut kontzeptu hori, eta ona iruditzen zaidalako egin dut. Norbait zerbait agintzen bazaio eta azkenean, gutxiagatik bada ere, ez bazaio ematen, nola geratuko da pertsona hori? Zapuztuta? Hau da, iruzur baten helburu dela pentsatuz?

Gauza garrantzitsuak hitzeman zaizkie emakumeei, berdintasuna delarik denetan garrantzitsuena, mugimendu feministaren garaipenak hasi zirenetik sufragismoarekin. Eta lortu dutena agindutakoa ez dela ikusten dute behin eta berriz. Maryse Choisyren esaldi batzuk jarriko ditut adibide gisa, izugarriak, aurreko mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadari buruzkoak:

«Esklabotza berrian, nor zegoen pozik? Emakumeak. Nortzuk engainatu zituzten berriro? Emakumeak. Beren abileziari eta erreibindikatzeko indarrari esker hiritar-galoiak irabazi zituztela sinetsita zeuden emakumeak. Hogeita hamar urteko gerraren eta hogeita bost urteko bakearen ondoren, konturatu ziren gizonak langileen beharrea zeudelako eman ziotela lan egiteko eskubidea, bi sarraski handiren ostean. Diputatu edo epai izateko pribilegioa eskuratuta ere, ez ziren inoiz ministro edo togadun magistratu izatera iristen, eta diploma berberekin ere gizonak baino ordainsari txikiagoa zuten beti. Goi-karguak erdiesten zituztenez ere, mekanografotzat jotzen zituzten lankideek. Udal-kontseilari Debray andreak Parisko aurrekontuen ardura izan zuen urte luzez, ez dena ahuntzaren gauerdiko ezutula; horren harira behin esan zidan bere lankideek askotan eskatzen ziotela “gauza bat edo beste makinan idazteko»<sup>12</sup>.

Pasa den mendeko laurogeiko hamarkadako feminismoak halako jardunbideak antzeman eta izendatu egin zituen: *kristalezko sabaia*. Agidanez, emakumeek eta gizonak aukera berberak zituzten, baina lehenengoak ez ziren haien heinean iristen goraino. Tarte baxuetan elkarren pare zeuden, heren batean erdikoetan, eta gailurrean, berriz, guztiz desagertu edo ehuneko bat, bi eta hiruko portzentaje harrigarrietan baino ez zeuden emakumeak. Ageri-ageriko eraginak zituen ezin ikusizko hesi horri izena eman zitzaion, eta konpontzen

<sup>10</sup> Ibid., 23. or.

<sup>11</sup> Ibid., 27. or.

<sup>12</sup> Maryse Choisy, *La guerre des sexes*, Publications Premieres, 1970, 224. or.



saiatu zen. Lehenengoari *kristalezko sabaia* deitu zitzaion; hura konpontzen saiatzeko, aldiz, *kuoten sistema* delakoa sortu zen, hasiera batean.

Erakunde formaletan ere jardunbide horri buruz mintzatzen ari ziren. Laurogeiko hamarkadako feminismoak azkar abiarazi zituen zenbaketak eta, hartara, hamarkada baten buruan prest zeuden. Laurogeita hamarreko hamarkadan argi eta garbi ikusi zen boterearen hainbat eremutan zegoela kristalezko sabaia, ez erakunde-arloan bakarrik, baita itxuraz informalak ziren alorretan ere. Nik neuk bi ikerketa-proiektu zuzendu nituen laurogeita hamarreko hamarkadan. Itxuraz, agintea eta bikaintasuna tartean ziren eremuetan, nagusiki kooptazio bidez egiten ziren hautaketak, eta emakumeak goiko tarte horietatik desagertzen ziren. Izan ere, kristalezko sabaia bete-betean funtzionatzen zuen sei sistema nagusi hauteman nituen gutxienez: politika, informazioa, enpresa-erakundeak, botere ekonomikoa, jakintza, erlijioa eta sormena. Bestela esanda, laburbilduz: politika, dirua, iritzia eta errespetua.

Honela egosi zen dena: hirurogeita hamarreko hamarkadan lortutako garaipenek aukera eman zuten feminismo garaikidearen agenda abian jartzeko, sexu- eta ugalketa-eskubideena hain zuzen ere, baina baita boterearena ere; horren ondoren, dena lortu dela sinetsita zeuden emakumeen bi belaunaldi jaio ziren, inokulazio sozialak bultzatuta berdintasuna dutela uste zutenak, alegia. Eta zerbait badute: beren garaikideen gune berberetan hezi dira eta, hortaz, errespetua galdu diete; lehengo belaunaldiek ez bezalako prestakuntza dute; ginofobia ez da lege esplizituetan agertzen; diplomak eta gogoak dituzte. Baina galdu egiten dira, aurreko beste batzuk bezala, sistemaren alboko korridoretan. Ez dira inoiz heltzen. Berez duten banakotasuna erantsiz gero, ez dakite nola bihurtu denon agenda babesgabe egoteak sentiarazten dien sumina. Besteak beti omen dira azkarragoak, eta kontaktu onenak ere dituztela ematen du. Zehazkiago esanda, beste emakume batzuk.

Duela hamar urte, hogeita hamar urteko emakumeak txarto begiratzen hasi ziren; sumindura zerien. Berrogei urte dituzte orain emakumeok, eta egun hogeita hamar urte dituztenek ere ez dute haiek baino hobeto begiratzen. Hala ere, oraindik ere ez dakit zer erregai mota den sumina; emakumeen artean berritasuna da, batetik, gorputz-banakoaren inpostazio/irudikapen berriak eraginda eta, bestetik, itxaropenen deflazioa dela eta. Begietatik bada ere, kanpora ateratzeak kontsolatu egiten nau, askoz ere txarragoa baita barruan uztea.

## Emakumeen talentuaren patua

Stendhalek behin idatzi zuen emakume jaiotzen ziren jenioei erruki zela, gizadiak ez zituelako aintzat hartzen. Ez zen bereziki misoginoa; hortaz, egoerak benetan penatzen zuela uler dezakegu. Galdu egingo ziren, beraz, emakumeok, ez zutelako non hedatu, ez laguntzarik, ez biderik. Ondo pentsatuz gero, beren buruaren aurka egin beste erremediorik ez zuten izango. Denon arau zaharra mantentzen duen munduan, ezinezkoa da iraultza gauzatzea. Eta, gainera, hazteko aukera oro deuseztatzen da. Suminak ez du izaera areagotzen, eta ez da fidagarria. Jenio haserrekorrenak ere lagun leial bakan batzuei baino ezin die erakutsi sumindura, jokamoldetik onenekin, betiere. Schopenhauer iruditzen zait horren adibiderik onena, zalantzarik gabe: inoiz izandako misantropo aktiboena zen, bere lagun-taldea ezin hobeto zaintzen zuena. Emaitzak agerikoak dira: pentsamendu modernoaren eragin handieneko pertsonetako bat da.

Amorruak ere ez du ospea loditzen. Baliteke mendez mende sumina ezkutatzeko eta nahaste horren zeinu ahulak egon izana. Santa Teresari testu baten zati bat ostu zioten behin, esaten baitzuen zenbait emakumek lausengatutako gizonezko teologoek baino gehiago zekitela. Halako ohartxoak topa daitezke emakume idazleen lanetan; baina agertzen diren bezain azkar ezkututzen dira berriz ere atzaparrak. Ez da zalantzan jarri behar baimena ematen dizun ordena, baimena ematen dizulako hain zuzen ere.

Aurrerago, gizonen nagusitasunarekiko sinesgogortasun zorrotz azaltzen denean —eta hori ez da XIX. mendearen amaierara arte ia gertatzen—, ezer gutxi jazo dela ikusi ahal izango dugu irekitako zirrikitutik. Eta matxinada esplizitu gutxi badago —berriz ere, baimendutakoaren estatutu hauskorrari eusteko— autozigor handia egongo da; hori da espero litekeen legea. Bada, XX. mendeko emakumezko artisten suizidio, alkoholismo eta zorritzarrek heriotzen zifrei erreparatuz gero, arrisku handiko taldea izan direla esan dezakegu irmotasunez. Duela hamarkada bat, Benjamín Pradok aho bete hortz geratzeko errepasso bat egin zuen maisu-artikulu batean<sup>13</sup>.

<sup>13</sup> Mujeres solas en la oscuridad, Opinión, 1998-11-2.



Emakumezko idazleei buruzkoa zen, batik bat. Beren buruaz beste egin zutenen kopurua latza da oso: zerbait egiten dio gizarteak emakumeen talentu paregabeari, behea jotzen baitute. Nire aburuz, edozein artetan saiatuak diren emakume ugarirengan ere hedatu liteke joera hori erraz. Gizonen asmo txarrak jasateko zailak dira. Eta horiek nabarmentzea debekatuta dago, balio patriarkalek bere horretan jarraitzen baitute. Itsututa ibiltzen dira emakumeak, kanpoko eta alboetako bideen izkinen kontra behaztopatuz, manuak balira bezala.

Duela mende bat jaio zen Beauvoir. Zera idatzi zuen bere memorietan: «aldata egin nintzen eta, hartara, mundu ezberdina behar nuen inguruan». Bere susmoen berri ere eman zuen: «Ez nintzen aurrera joango; ez nuen nire lana egingo. Lehenbiziko aldiz pentsatu nuen hobe zela hilda egotea bizirik baino». Eta, «bere burua oso maite zuela» esaten duen arren, edo beharbada horregatik ihes egiten zaio: «Honek ezin du horrela jarraitu; ezin du iraun. Irtenbiderik gabeko gatazka berbera beti! Nire indarrez oso kontziente naiz, **gizonen gaineko nagusitasunaz**, egin nezakeenaz; eta horrek guztiak ezertarako balio ez duela sentitzea. Ez, honek ezin du horrela jarraitu. Eta bere horretan jarraitzen zuen. Eta baliteke hala jarraitzea betiko»<sup>14</sup>.

Ile bat bitan zatitzea bezalakoa da egitera noana, baina balio izango duelakoan nago; misoginia eta ginofobia bereizi nahi ditut. Misoginia deritzot patriarkatuaren funtzionamendu «arruntari», nolabait esatearren. Bazterketa-sistemek, alderdi biek onartutakoek, eta autoestimua sistemek, denonak horiek ere, ohi bezala funtzionatzen dute. Sexu bakoitzak ondo baino hobeto ezagutzen ditu bere itxaropenak, eta bultzadak gutxieneko konfrontazio-tarte batean garatzen dira. Gizarte guztiak dira misoginoak, baita gurea ere. Mugak jartzen dizkiete emakumei, eta haiak onartu egiten dituzte; beren buruari mugak ezartzen dizkiote «txarrera ez egiteko»: Toki jakin batzuetara joateari uzten diote, ordu jakin batzuetan..., bai eta beren talentuak edo gurak eraman nahiko lituzketen tokietara ere. Ezaguna da fenomenoaren enpleguan, adibidez. Emakumeak gehiegi prestatuak doaz erdi-mailako enpleguetara; hala, batetik, ez dira lehiatuko eta, bestetik, nolabaiteko arrakasta izateko aukera izango dute. Eta sormenean ere gauza bera gerta liteke. Emakumeon sormenari eta aintzatespenari jarritako mugek isila izatea gomendatzen dute. Halaxe funtzionatzen dute egun neska gazteek eskola mistoan: adimena ezkutatzen dute, ez dute hitzik egiten; aurrez aurre jartzea saihesten dute. Ez dute inolako kolperik jaso nahi.

Misoginia da sistemaren joera nagusia. Ginofobiak bilatu, apuntatu eta tiro egiten du. Azoketako tiro-kasetetako egurrezko ahatei tiro egiten zaien moduan destatzen du; biktima aukeratu egiten du. Borondate-plus bat du ginofobiak. Besteak beste, *Cleopatra* filmaren elkarriketa ugari kendu litezke («emakume batek hala hitz egingo balit jipoitu egingo nuke», esan omen zuen ekoizleetako batek), bai eta lan-merkatuko ginofobia deuseztatu ere; izan ere, isileko akordio bat dela bide, emakumeek ezin dute zenbait sektoretan sartu. Bikaintasunaren alorrean pertsona ospetsuek porrot egitea ere izan liteke, girorik sortu ez dezaten edo eredugarri izan ez daitezen. Misoginiak eta ginofobiak ez dute elkar baztertzen; aitzitik, elkarri laguntzen diote. Misoginiak zigorgarritzat hartzen duena zigortzen saiatzen da ginofobia.

Emakumezko artista asko amorrutzat eta autosuntsiketaz beterik daude; toperaino bultzatzen ari zaien zantzu. Baina plazatik, barregarria da animalia kexatzen eta mugitzen ikustea. Oldartzen bazara, min duzun seinale. Min baduzu, mereziko zenuen. Aurreratu eta zeure burua zauritzen duzula? Ederto; bagenekien buru-baliabide urrikoak —hots, adimen txikikoak— zinetela. Orlane, ez lanik hartu zauri gehiago egiten, laztana. Beldurra baino, barregura ematen duzu eta.

<sup>14</sup> Memorias de una joven formal, Sudamericana, Buenos Aires, 1973, 283. or.





## Binaka. Fenomenologia bat

Batzuetan, are gehiago dibertitzen da ginofobia. *Arrain txiki*entzako sareak erabiltzen dituenan gertatzen da hori; nahita, neska gazteak sustatzen ditu helduen gainetik, etorria adimenaren gainetik eta ohea beste edozein merituren gainetik. Nahiko ohikoa da. Hau da ikuspuntu-sarea: emakume bakoitza ez da bere motako gizon batekin alderatzen (homologo batekin, zentzu hertsian); alderantziz, emakumeak elkarrekin erkatzen dira. Bata bestearekin, generoaren ordezkari bakar batekin geratzeko azkenean; «hau bai, hau ez», «honek balio dit ala ez dit balio», neurgarriak balira bezala. Beste modu batean ulertuta ere: haien artean bakarrik konparatzen ditugu, haiek beren artean egiten duten bezalatsu, obeditu diezaguten, hala lortzen baitituzte arrakasta eta banakotasuna. Horregatik gorroto dute askotan emakumezko egileek emakumezkoenak baino ez diren bildumetan egotea. Uste dute haietatik ihes eginez gero taktika zahar horretatik ere aldenduko direla. Beren parekoekin egon nahi dute, baina zergatik izan beharko lukete emakumeak bakarrik beren parekoek? Beste taldeak aukeratu ditzan nahi dute; hark, tamalez, ale bat baino ez du nahi, eta hori erakusgai jartzeko, besterik gabe.

Hortaz, ez da harrizkoa batzuek *erdiko bidea hartzea*. Talamoak bide ziuira dirudienek («indar handia idiak... handiagoa titiak»), ergela emateko eta zuhaitz zahar eta errespetatu bati hurbiltzeko erabil daiteke talentua hasieran; bertatik bilatuko da bidea, aukerari zain egonez, maltzur. Zuhaitza handiegia bada, ordea, jakina da haren gerizpearen azpian ezer gutxi haziko dela; horrez gain, aurrez hainbeste pentsatzea ia ezinezkoa da benetako talentuan, ez baitira bateragarriak, oro har. Gizonezko egileek babesla topatzen dute aise, baita emakumezko babesle sutsuak ere batzuetan; emakumeek, aldiz, ez dute hain zorte onik: Beren kabuz moldatu behar dute. Edo talamo bidezko babesla aurkitzea, amarrutsua bada ere. Gizonezko artistek eta emakumeek osatutako bikote desberdin asko aurrerari horiek dituzte, baita ondorio jakin batzuk ere. Lehen eta nabariena, estrategia ezaguna delako denon ikusmiran dagoena; adinak bere lana egin arte itxaron besterik ez dago. Zenbait emakumeren talentua betearazle izateko gaitasunera mugatu da, zorte apur batekin.

Bide arrunta hartzen duenarentzat, bikotea arriskua izan daiteke. Balioen taula ez da egituratu bikote batean bi izateko, bata bestearen aldarean ezereztu dadin baizik; hala bada, *galpidezko sistema* ezarri da. Espainiako zuzenbidean, irabazpide deritze senar-emazteek dituzten ondasunei, kideetako batenak soilik ez direnak, elkarrekin irabazi dituztelako. Hori da formularik erabiliena. Zurea nirea da eta alderantziz. Galpidezko sistema, berriz, konpentsazio sinbolikoan datza: batek irabazten duena besteari kenduko zaio. Ez da trukakorra; hortaz, ez du esan nahi batek galduz gero besteari, hutsetik, ezer emango zaionik. Laburbilduz, kentzeko baino ez du balio. Espediente hori abiapuntu hartuta, jakinaren gainean dauden gizonek ez dituzte berdintsu bilatzen, inork aplikatu ez diezaie. Emakumei dagokienez... ez dakite zeinekin geratu, amodio likidoak gailen diren garai honetan. Dena izan nahi dute.

Duela mende erdi bizi ziren emakume independenteek bazekiten zer arriskatzen zuten<sup>15</sup>. Bata ala bestea, hori zen deliberamendu latza. Independentziak ezkongabetasuna zekarren berekin. Eta bikoteak, arriskua eta, beharbada, ni askea suntsitzea. Orain, norbaitek sexuen arteko berdintasunaren zinta jarri duenez behin eta berriz, jendeak neurri bateraino sinetsi du. Baina horrek esan nahi du berrogei urtetik beherako emakume guztiek uste dutela ateratzen ez zaie guztiaren errudun direla. Arrakasta, maitasuna eta familia aldi berean eduki ezin badute... ez dira behar bezala moldatzen. Hiru gauza horiek, izan ere, nekez uztar ditzakete emakumeek; kontakizun zahar horretan bezalaxe: nola eraman otso bat, ardi bat eta uraza bat ibaiaren ertz batetik bestera txalupan, inork ezer jan gabe. Binaka edo hainbat bidaiatan egin beharko litzateke. Bada, gauza bera hirukote horrekin. Beste emakumeen ordu zenbatezina eskura dituen eta lan gehiegi duen pertsona batentzat dago kalkulatu. Eta beste emakume diot, jakinaren gainean. Izan ere, emakumeen zereginak dira oraindik ere, besteak beste, jaten ematea, hizpidea ematea, janzen ematea... hots, (*hominis*) *laetificare cor* edo (gizonei) bihotza alaitzea. Emakumeek ez dute emazterik. Berdintasunak bizitzeko eta denbora neurtzeko modu berriak dakartza berekin. Orain arte, bederen, nobedade horrek ez du gizarte-saririk.

<sup>15</sup> Horren adibide da Beauvoirek La force de l'âge delakoan bere golkorako egindako azterketa: «Nire erraietatik haragia irtetea ez zen nire ametsa, ezta hurrik eman ere. Hain ginen nire gurasoak eta hirurok ezberdinak, non izan nitzakeen seme-alabak arrotz iruditzen zitzaizkidan... mamu afektibo batek ere ez ninduen bultzatzen ama izatera. Bestalde, ez zitzaidan bateragarria iruditzen hartu nuen bidearekin: idazle izateko, jakin nekien denbora asko eta askatasun handia beharko nituela. Ez nituen joko zailak gorroto, baina honako hau ez zen joko bat: nire bizitzaren zentzua, balioa, zegoen kolokan. Hura arriskatzeko, lan bat bezain garrantzitsua izan beharko zuen niretzat haur batek, eta ez zen hala». Gallimard, 1960, 92. or.



## Akiles eta dortoka

Duela hamarkada luze, *La política de las mujeres* liburuan, idatzi nuen «Gizartera eta heldutasunera iritsi berri diren emakumeak ez dira konformatuko erdietsi denarekin, hauskorra ez ezik eskasa ere bada eta. Ez dut uste pozik geratuko direnik administrazio-mailetako beheko tartean eta erdiko tarte batzuk betetzearekin. Ez dut uste lehen eta bigarren hezkuntzetan lan eginez beteko dituztenik prestakuntzan lortu nahi zituzten xedeak. Ez dut uste eroso egongo direnik merkatu librean oinarritutako lan-munduan funtzionamenduarekin; izan ere, lan-mundu hori sare informalek zuzentzen dute, eta emakumeek ez dute sare horietarako sarbiderik»<sup>16</sup>. Aurrera egin al dugu? Bai, dudarik gabe; aurreratuz joan gara, poliki-poliki. Gobernu kontserbadorea buru izan den zortzi urteetan bultzada galdu dugun arren, gaindika berreskuratu dugu. Ezin uka daiteke, halere, urria dela lortutakoa. Hortaz, zergatik ez gara altxatzen? Antzinako ordenaren aldekoek ez lukete zalantzarik egingo: masa bizigabea bizi da dagoeneko bere itxaropenen gainetik, eta oraindik ere ez daki nola jardun. Izan ere, hainbeste erdietsi da ezen inork ez baitu gehiago nahi, gutxi batzuek baino, erreklamatzailer neurotikoen elitearen zati direnek. Kontserbadoreei bost axola zaizkie elite diskriminatua. Nik neuk entzun diet esaten jendetza kezatiari gertatzen zaionaren ondorioz soilik arnasten dutela emakume eta gizon horiek<sup>17</sup>.

Hau izan liteke beste azalpen bat: Arrakasta beren kasa bilatzen duten banakotzat harturik emakumeak, beren gogoen batuketa nahasia agertzen da atxikitasunik gabeko giro batean. Beste gai bat ere mahaigaineratu nahi dut, horrekin erkatzeko eta konbinatzeko: aurrera egin ahala, helburua gero eta urrunago egotea.

Gutako bakoitzak seguruenik erreparatu diogun perspektiba-efektu nabaria dago. Mendiek urrunetik horizontearen zati handiagoa hartzen dute; hurbilduz gero, tontorrek behera doaz, eta garaiera ertainekoek ordezkutzen dituzte. Hala, ikusmenetik galtzen dugu benetan handia den harrizko gortina. Era berean, bere faseetako edozeini ekiterakoan, feminismoa gai izan da azken helburua ikusteko, baina oztopoak agertu ahala lausotuz joan da, ezereztuz.

Azken xedeak baloratzea da egoera ulertzea, bere esanahiaren eskemetan murriztuz, bere sintomak interpretatuz; baina egoera jakin bati aurre egiteak estrategia, bitartekoak eta helburuak ditu berekin, tentu handiz maneiatu beharrekoak. Justiziaren teoria unibertuala ezarritakoa, nahiko erraza da garrantzizko arlo batean parekotasuna erdiesteko gogoia aldarrikatzea, eta hala egiten da; konplexuagoa da hori lortzeko bitartekoak adieraztea eta adostea. Baina zerbait ikasi dugu jada.

Zifrak ezagutzen ditugu, eta jakin badakigu ez daudela ageriko desakordio kualitatiboetan oinarrituta, aspaldiko ideietan eta loturiko laguntza-sareetan baizik. Anbizioa duten emakumeak, askotan, paradoxa batean bizi balira bezala sentituko dira ziurrenik; seguru asko, sentsazio hori ezaguna egingo zaio baten bati: Akilesek ez du inoiz dortoka harrapatuko, aurretiko distantziak aldentzen ditu eta. Eta Akiles korrikalaririk trebeena bada ere, lehenik eta behin banatzen dituen distantziaren erdia egin beharko du; ondoren, erdiaren erdia, eta abar. Dortokak, astiro joanik ere, betiko utsiko dio hasierako abantailari. Izan ere, ahalegin handiak egin ditu dortokak, eta babes handia ere badauka. Narrastien garun gehienek haren erritmo berean egiten dute lan, eta denok dugu halako bat.

*Zergatik ez da izan emakume artista handirik* izeneko artikulu ospetsuan, Linda Nochlinek erakutsi zuen zein paradoxa-amarrutan eror zitekeen hala egindako galderari erantzuten saiatuz gero. Erantzutean, izan ere, «amua, haria eta lasta ere irensteko» arriskua dago. Aitzitik, artea zer den eta emakumezko talentuari zergatik egiten dion aurka galdetu beharko genioke geure buruari. Arte klasikoan ez dago ia emakumerik, ezta tenislari handirik ere eskimalen artean. Errudunak ez dirudite «horoskopoa, hormonak, ziklo menstrualak edo tarteko espazio hutsak» izan direnik. Arazo bat dago emakumeekin. Giza arazoren bat dagoenean, egoeraren izaera berriz interpretatu beharra dago. Hauxe da: «pribilegioak dituztenek haiei heltzen diete, tinko, lortutako abantaila hutsala izanik ere, edozein motatako

<sup>16</sup> Aipaturiko lana; 193. or.

<sup>17</sup> Aipatu beharra dago Berdintasunaren Legea zela testuingurua, Escorialeko ikastaro batean ezlabaidatua. Baina hori bota zuten PP alderdiko emakumezko diputatu bik ni neu partaide nintzen mahai-inguru batean; nolana ere, bertaratutakoek ez zitzaizkien txikieria iruditu eliteak diskriminatzea, nire aburuz.



goreneko botere batek horiek uztera behartzen dituen arte». Esan bezala, dortoka beti egon da aurretik eta, Akilesek baino, Atalantak ordezkatu ditu emakume korrikalariak.

Hartz eme batek hezi zuen, eta Artemisaren zerbitzari bilakatu zen, baita ehiztari trebe ere; baina korrika egiten zen bikaina. Inork ezin zuen gainditu. Akilesten aita bera ere garaitu zuen. Inork ere, Venusek lagundutako gaztetxo batek lasterketan parte hartu zuen arte. Txitean-pitean, urrezko sagar bat botatzen zuen lurrera. Atalanta hartzera gelditzen zen, eta distantzia galtzen zuen une oro. Nochlinek ondo dioen bezalaxe, kanon handia emakumezkoen talentuaren aurka egituratuta dago, eta emakumeek beren kateak baino gehiago dute galtzeko. Gainulertuen mundu konplexua da patriarkatua. Atomizaturik egoteagatik ez ezik, galtzeko asko dutelako ere ez dira altxatzen emakumeak. Eliteko eremuetan, berez urriak, bakoitzak daki zer sagar hartu behar dituen. Horri buruz hitz egin beharko litzateke.

## Umorearen betebeharra

Gizakiok izaki sozialak gara berez, eta entzun diezagukeen norbait badugu baino ez gara kexatzen. Eta honekintxe amaituko dut. Arte feministak badu ildo koleratsu nabarmen bat. Ibaiaren beste ertzean azaldu beharko litzateke zergatik eta nola irudikatzen diren emakumeak; honen harira, zer sortzen duten ere jakin beharko litzateke. Hau da egia eztabaiaezina: bi bandoen emaitzetan dagoela indarkeria. Hiru hamarkadaz, suntsiketak izan dira nagusi arte feministan. Ziur nago sexuen arteko gerra artean islatzen dela, baina biktimize eremu berekoak izaten jarraitzen dutela. Eta *adierazpeneko artearen* adierazgarriak ere egon arren, egiatan, rol-inbertsioa gailen da sorkuntzetan, eta oroimen kolektiboaren atzerapen jungiarren antz handia dute. Gizonak eta emakumeak ispiluko egoeretan kokatzean datza funtsean, ikonografia erredundantea alderantzikatuz, edota emakumezko jainko arkaikoenak garatzean. Halaz guztiz, piezak ez dira kanonera igarotzen, ez eta galeria handien gutxieneko estandarretara iristen ere. Emakumezko artista asko daude desobeditzen, bai, baina ikusle gutxi daude hainbeste amorrurako. Eta irteera eman behar zaio, samin bihurtu ez dadin.

Umorearekin ere nahastu behar da. Guerrilla Girls taldeari eskaini nahi diot puntu hau. Umorearen garaia amaitu direla uste badut ere - umorearen eta zorroztasunaren betebeharra neketsua baita kritika egiteko modu bakarra bada -, denbora batez beharko dugu; izan ere, zauriak sendatzeko erabiltzen du adimenak humorea. Jolas-eremu honek, dena den, ez digu mesederik egiten; umore feministak agudezia zorroztu behar du, nahiz eta txantxa inozo eta misoginoak ez duen alderdi hori landu behar. Hobe da, nire ustez, lehia umorearen eremutik at garatzea, beti irabazten baitio broma txar batek sarkasmoari. Ez naiz ari jasan den umorearen betebeharrak; hau da, ez da zapalkuntza xebebrekeriatzat hartzeko betebeharra garbitu nahi, ez eta emakumeek misoginiaren aurrean egiten dituzten algara urduriak ontzat eman ere. Aitzitik, umorea zuzentzeaz ari naiz, gaiaren mamia larria dela jakinda, autoestimua eta bizi-proiektuak konprometituz baitaude.

Hortaz, kontaketa- eta kuota-estrategiak ezartzen dira elkarrekin. Adierazpeneko estrategiak inposatzen dira, baita *bikaintasunaren* munduan ere, goren mailako horrek jantzia altxatzen duenean, ilez beteriko hankak antzematen dira eta. Politikan parekotasuna sustatu duten neurriak prestakuntza nagusi den beste alor batzuetara hedatu behar dira.

Arco 2005 ekitaldian manifestu bat jarri zen abian, oraindik ere sinatu daitekeena; oraino Espainiako Parlamentuko legez besteko proposamen batean aipatu da, baina ez dakit eragin gehiagorik izan duen. Bertan, zenbait puntu zehatz aldarrikatzen ziren: Bat: Emakumezko artistek funts publikoekin finantzaturako erakustaldi eta erakusketetan duten presentzia aztertzen duen batzorde bat sortzea, hau da, kontuak ateratzea, hori baita beharrezko abiapuntua. Bi: neurriak hartzea emakumezko artistek testuinguru inpartzialean lan egin ahal izan dezaten; horrek barnean hartzen du erosketaren politika publikoa. Eta hiru: neurri feministak ezartzea, besteak beste, kuoten ezarpena.

Gauzak bestelakoak balira, zapalkuntzarik ez balego eta etsipena ugari banatuko balitz, misoginiak eta ginofobiak bere horretan jarraituko ez balute... oraindik betetzen ez diren premisa gehiegi. Gertatzen denean ospatuko dugu. Momentuz, emakumezko artistek tartea behar dute, eta feminismoak ere erdietsi behar du bere autoulermen estetikoak. Etikak eta estetikak modu asintotikoan egiten dute bat, baina banandurik daude denboran eta espazioan. Feminismoa etika eta politika da, baina totalizazio-inplikazioak ere baditu, bere estetika, non etikak, bere unibertsalismoa dela eta, gain hartu ezin ditzakeen ñabardura bereizgarriak onargarriak diren. Lehen irudia zaindu behar



du norbaitek, erdietsi beharreko gailurra, alegia; teoria feministak egin behar du hori, eskua altxatu helburuak etengabe seinaltzeko, eta horiek lortzeko bidean nor bere burua kokatzea ahalbidetzen duen oroimena ere eraiki behar du. Artea beste gauza bat da: bizitza da. Solanasek ere esaten zuen hori; «pobrearen mozkorra» esaten zion kontenplazio hutsezko arte pasiboarekin haserretzen zen berberak; halako idazki zorrotzekin baiesten zuen arte gorena, hau da, «arte bakarra, kultura bakarra, askatutako emakumeak izango dira, beren buruarekin pozik egongo direnak, haien eta unibertsoaren artean dagokien lekuan»<sup>18</sup>.

Momentuz, Venadita eta Medusaren artean eztabaidan jarraitzen dute emakume-sortzaileek. Estetikari agertzeko aukera ematen dion distantzia falta da. Triste dagoenak ezin du minari buruzko poema bikainik idatzi. Bécquerren esanetan, beharrezkoa da sentimendua aldentzea maisukiro irudikatu ahal izateko. Arte feministak duen sumina erdibidean dago oraindik eta, horregatik, estetizatu beharra dago. Berehalakoa da, erraietakoa, emozionala, zuzena. Laburbilduz, oraino ez da estetikoa. Eta distantzia hori ezinbestekoa da.

---

<sup>18</sup> SCUM, 29. or.

